



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/06/07

Bizkaiak ETako presoen "urruntze politikearen" bukaerea eskatu dau

Bizkaiko Batzar Nagusiek, EAJ-PNV, EH Bildu, PSE-EE eta Podemos Bizkaia taldeek sinatutako zuzenketa-eske transakzionala onartu dabe gaur goizean. Bertan, Gobernu zentrala oraindino indarrean daukan ETako presoak urruntzeko kartzeletako politikeagaz desadostasuna adierazoten da. PP eta Talde Mistoa izan dira beste lau talde politikoek adostu daben testuaren kontrako botoa emon daben bakarrak. Lau taldeek, hasieran koalizino abertzaleak Iraskunde, Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Batzordean aurkeztu dauen arauz besteko proposamenaren eukia baztertu ostean adostu dabe testua.

Lau taldeek adostu daben zuzenketa-eskearen testuan, Bizkaiko Batzarrek, “Kartzeletako Lege Orokorrean aurreikusitakoa betetea aitatzuz, askatasuna kentzen daben zigorrak beteteko orduan deserriratzea saihesteko asmoz, eta pertsona horreen bergizarteratze printzipioak bat etorrita, euren desadostasuna erakusten dabe urruntzea bultzatzen dauen kartzela politikeagaz eta, holan, ETak bere jardueria behin betiko itzi eta gero zabaldu dan garai barriaren barruan, beharrezkotzat jotzen dabe, askatasuna kentzen daben zigorrak gizartea eta familia sustraituta dagozan lekuetatik urrun bete beharra saihestuko dauen kartzeletako politika barria, senideakaz izan beharreko hartu-emonia eta adinbako seme-alaben ongizatea kontuan izanda, eta hareek euren gurasoakaz egoteko daben eskubidearen defentsan”.

Ekain Rico batzordekide sozialistak eztabaidaren tonua eskertu dau, “herritarrek erabilten daben tonu bera”, eta bertan jarrera bi irudikatu dirala adierazo dau. Alde batetik, PPK eta Talde Mistoa ez dabe aldaketarik onartu Gobernu Zentralak aurrera daroan kartzeletako politikan, ETak arma guztiak entregetan ez dituan, desegiten ez dan, eragindako kaltea autortzen ez dauan eta “300 krimen” argitzen laguntzen ez dauan bitartean. Arturo Aldecoak eta Javier Ruiz bozeroale popularrak adierazo dabenez, gainera, presoek “beti” izan dabe kartzeletako onurak lortzeko aukerea, 1985ean sakabanaketa politikea hasi zanetik.

Akordioa sinatu daben lau taldeek, euren aldetik, “garai politiko barriaren aurrean gagozala” azpimarratu dabe, eta garai horretan “ez dala bidezkoa” ETako presoan urruntzean oinarritutako politikea. Josu Unanue EH Bilduko bozeroalearen eretziz, ezinbestekoa da politika horregaz bukatzea, beste errazoi batzuen artean, eragina daukalako “ezelango errurik ez daukien” presoan seme-alabengan. Podemos Bizkaiak, Gobernu Zentralak “ez dauela legea beteten” kritikau dau, presoei euren zigorrak senideengandik gertu beteteko eskubidea ukatzen deuselako. Foru Gobernua eusten daben talde bietatik –EAJ-PNV eta PSE-EE–, barriz, pertsona horreen “bergizarteratzea bultzatuko dauen” kartzela politika barriari ekin behar jakola aldarrikatu da. “Bigarren aukerea bilatzen dogu. Ez da saria”, adierazo dau Ricok ETako presoak euren familiengandik eta gizartetik gertu dagozan kartzeletara gerturatzeari jagokonez.

ONARTU EZ DIRAN PROPOSAMENAK

Saio berean arauz besteko beste hiru proposamen eztabaidatu eta bozkatu dira, baina bata be ez da onartu. Horreetako batean, EH Bilduk proposamen bat aurkeztu dau, Aldundiak “eragin barik itzi daian” joan dan martiaren 13an, Saudi Arabiarrera joiazan 4.000 tona bonba itsasontzietara



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

sartzeko beharretan laguntzeari uko egin ostean, suhiltzaile bati edegi jakon diziplinazko espedientea, “ez ebalako ezelango deliturik egin”. Ekimenak Podemos Bizkaiaren aldeko botoa jaso dau, baina gainerako taldeek –EAJ-PNV, PSE-EE, PP eta Talde Mistoa– kontrako botoa emon dabe.

Lau talde horreek bat egin dabe aurreko saio batean Aldundiak emon ebazan errazoiakaz, prebentzinozko eta zainketako agindu bat bete ez eban funtzionario publiko bati edegitako prozesuagaz jarraitzeko eta oztoporik ez jarteko. Zaindu beharreko materiala arriskutsua zan ondasunen eta pertsonen segurtasunerako. Espedientea “ez da modu arbitrarioan edegi, betebehar batzuk bete ez diralako baino”. Kritikau dabenez, EH Bilduk planteetan dauena funtzionario publiko batek edegi eban gai administratibo batean “injerentzia politikoa” da. Aldundiko behargina dan instruktorea izan beharko da espediente hori itxi behar dauena.

Horren ostean, Bizkaiko Batzarrek ez dabe onartu, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen kontrako botoakaz, EH Bilduren arauz besteko beste proposamen bat, eskualde mailako arreta puntu moduan probatan zabalik dagon Durangoko Gertu bulegoa ikusteko bisitea modu formalean antolatu daian eskatzeko Aldundiari.

Eta bukatzeko, batzordeak ez dau onartu Podemos Bizkaiaren arauz besteko beste proposamen bat. EH Bilduren aldeko botoa baino lortu ez dauen proposamenak eskaria egiten eban Aldundiak, Eusko Jaurlaritzagaz eta Bizkaiko udalerriakaz batera, sentsibilidade zentraleko gaixotasunak (sentsibilidade kimiko anitza, elektro-sentsibilidadea, fibromialgia eta neke kronikoa) dituen pertsonentzako laguntzea emoteko linea edegi daian, euren etxebizitzak egokitu ahal izateko. Ezezkoa emon daben taldeen eretxiz –EAJ-PNV, PSE-EE, PP eta Talde Mistoa–, proposamena gehiago da “borondateen aitortpena”, euskal erakundeek euren gain hartu daikien proposamena baino, gaixotasun horreek eragiten dituen zergaitien inguruan “ezagutza falta zientifikoa” dagolako.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
07/06/2017

Bizkaia pide el fin "de la política de alejamiento" de los presos de ETA

Las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado esta mañana una enmienda transaccional firmada por PNV, EH Bildu, PSE-EE y Podemos Bizkaia en la cual se manifiesta el desacuerdo con la política penitenciaria de alejamiento de los presos de ETA que sigue practicando el Gobierno central. Solo PP y grupo Mixto han votado en contra de un texto consensuado entre las cuatro formaciones políticas tras la retirada del contenido de una proposición no de norma que había presentado inicialmente la coalición abertzale para su debate en la comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia .

En el texto de la enmienda consensuada por las cuatro formaciones, la Cámara vizcaína “apelando al cumplimiento de lo previsto en la Ley General Penitenciaria para evitar el desarraigo en el cumplimiento de las penas privativas de libertad, conforme a los principios de reinserción y resocialización de las mismas, manifiestan su desacuerdo con la política penitenciaria de alejamiento y, en este sentido, dentro del nuevo tiempo abierto tras el cese definitivo de ETA, entienden necesaria una nueva política penitenciaria que evite un cumplimiento de penas privativas de libertad lejos de los lugares de arraigo social y familiar, facilitando la relación con sus familiares y en atención al bienestar de hijos e hijas menores de edad y en defensa de su derecho de estar con progenitores.”

El juntero socialista Ekain Rico ha agradecido el tono del debate, “el que utiliza la ciudadanía”, en el cual se han dibujado dos posturas. Por una parte, el PP y el grupo Mixto han rechazado un cambio de la política penitenciaria del Ejecutivo central mientras ETA no entregue las armas en su totalidad, no se disuelva, no reconozca el daño causado y no colabore en el esclarecimiento de “300 crímenes”. Tanto Arturo Aldecoa como el portavoz popular Javier Ruiz han sostenido, además, que los presos “siempre” han podido acogerse a beneficios penitenciarios desde que en 1985 comenzara la política de dispersión.

Por su parte, las cuatro formaciones firmantes del acuerdo han destacado que “nos encontramos ante un nuevo tiempo político” en donde "no cabe" una política de alejamiento de los reclusos de ETA. Para el portavoz de EH Bildu, Josu Unanue, es necesario acabar con ella porque, entre otras cosas, afecta a los hijos e hijas de los presos “que no tienen ninguna culpa”. Podemos Bizkaia ha criticado el “incumplimiento legal” del Gobierno central al no permitir que los presos y presas cumplan las penas cerca de sus familiares. Por su parte, desde las dos formaciones que sustentan el Gobierno foral –PNV y PSE-EE- se ha abogado por comenzar una nueva política penitenciaria que “favorezca la reinserción y resocialización” de estas personas. “Buscamos una segunda oportunidad. No es un premio”, ha dicho Rico sobre el acercamiento de reclusos etarras a cárceles del entorno familiar y social.

PROPOSICIONES RECHAZADAS

En la misma sesión se ha sometido a debate y votación otras tres proposiciones no de norma que han sido todas ellas rechazadas. En una de ellas, EH Bildu ha planteado que la Diputación



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

“dejara sin efecto” el expediente disciplinario abierto al bombero que se negó, el pasado 13 de marzo, a "colaborar", según este grupo juntero, en las labores de embarque de 4.000 toneladas de bombas con destino a Arabia Saudí, porque “no cometió delito alguno”. La iniciativa ha contado con el apoyo de Podemos Bizkaia, mientras que las demás formaciones –PNV, PSE-EE, PP y Mixto- la han rechazado.

Estos cuatro grupos junteros se han alineado con las razones que ya dio la Diputación en una sesión anterior para continuar y no entorpecer el proceso abierto a un funcionario público que incumplió una orden superior preventiva de vigilancia por tratarse de material peligroso que podía afectar a la seguridad de bienes y personas. El expediente "no se abre arbitrariamente sino por incumplimiento de unas obligaciones". Han criticado que lo que EH Bildu plantea es una “injerencia política” en una cuestión administrativa que fue abierta por un funcionario público y "debe ser cerrada" también por un instructor empleado de la Diputación.

A continuación, la Cámara vizcaína ha rechazado también, con lo votos en contra de PNV y PSE-EE, una proposición no de norma de EH Bildu para solicitar formalmente a la Diputación la organización de una visita a la oficina Gertu de Durango, abierta por la Diputación en pruebas como punto de atención comarcal.

Y, por último, la comisión ha desestimado una proposición no de norma de Podemos Bizkaia, que solo ha contado con el apoyo de EH Bildu, para que la Diputación, junto con el Gobierno Vasco y los municipios de Bizkaia, estableciesen, entre otras cosas, una “línea de ayudas” a las personas afectadas por las enfermedades de sensibilización central (“sensibilidad química múltiple, electrosensibilidad, fibromialgia y fatiga crónica”) para poder adecuar su vivienda. La propuesta parece, según sus detractores – PNV, PSE-EE, PP y Mixto-, una “declaración de voluntades” que una propuesta que pueda ser asumida por las instituciones vascas debido al “desconocimiento científico” de las causas que originan estas enfermedades.